# AGINTARIAK ETA LANGILEAK

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### SEGURTASUN SAILA

### 5481

*EBAZPENA, 2025eko abenduaren 9koa, Segurtasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita noiz jarri den Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean 2025eko abenduaren 5eko Ebazpena, kide batzuk Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agente lehenaren kategoriarekin karrerako funtzionario izendatzeari buruzkoa.*

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiaren 2022ko azaroaren 30eko Ebazpenaren hamahirugarren oinarriarekin bat etorriz (ebazpen hura Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agente lehenaren kategoriara igotzeko hautaketa-prozeduraren deiari buruzkoa da; EHAA, 241. zk., abenduaren 20koa), eta Segurtasun Saileko Egitura Organiko eta Funtzionalari buruzko urtarrilaren 29ko 318/2024 Dekretuaren 9. artikuluak ematen dizkidan eskumenak direla bide, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aditzera ematen da Segurtasuneko sailburuordearen 2025eko abenduaren 5eko Ebazpena jarri dela, kide batzuk Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agente lehenaren kategoriarekin karrerako funtzionario izendatzeari buruzkoa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean 2025eko abenduaren 9an.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 9a.

Segurtasuneko sailburuordea,
RICARDO ITUARTE AZPIAZU.